



2013KO IRAILAREN 6KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamahiruko irailaren seian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratu-tako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Insausti eta Inazio Estensoro Eskisabel.

Andoitz Garmendia Zubeldia zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturakoen onespenera aurkezten da 2013ko uztailaren 24an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2013ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 42 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEITA HAMALAU MILA BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA BI EURO ETA HIRU ZENTIMO (34.562,03,-)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- BULEGO MATERIALAREN HORNIKETAREN KONTRATAZIOA.-

Diputatuen Kontseiluaren 2011ko ekainaren 21ean jasotako eskuordetzaz baliatuz, Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko foru diputatuak 2012ko azaroaren 21ko foru aginduaren bitartez, MONTTE S.L. (IFZ.:B20062295) enpresarekin Foru Kontratazioen Zentralaren bidez bulego materiala hornitzeko esparru akordioa (X12017) burutzea erabaki zen.

Lazkaoko Udalarari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikularekin arabera, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa izenpetu ondoren, zerbitzuburuak, 2013ko irailaren 4an emandako txostenaren arabera proposatu du bulego materialaren hornikuntzako kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea.

Honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaraturakoa bere partaide guztien aldeko botuekin, bulego materialaren horniduraren esleipena MONTTE, S.L.ri, N.I.F.: B20062295, egitea erabakitzen du.



IV.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Estensoro zinegotziak bi eskari planteatzen ditu: bat, goiko biribilgunean zubitik meandrorra espaloia orain ez egitea gaizki iruditzen zaiela; eta bi, Lazkomendiko bidea dela eta, biribilgunea egin den beste guneeetan bezala, oinezkoentzat azpitik bidea egitea eskatzen dutela.

Alkateak esaten du bigarrenko eskaria dagokionean, berak dakienez aurreko legealdian hori inork ez zuela planteatu eta gehitzen du behar hori beraiek ere aurreikusten dutela.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta hamar direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

